



*Gaur egun guztiek onartzen dute garapen ekonomikoa eta ingurugiroa oso estuki lotuta daudela eta politika ekonomiko oro diseinatzerakoan biak uztartu beharra dagoela. Ingurugiro-irizpideak garapen ekonomikorako estrategia eta ereduetan txertatzen ari dira asko eta horren ondorioz, ingurugiroa gero eta garrantzitsuagoa da politika ekonomiko eta enpresarialetan, administrazio publikoetako kudeaketa-sistemetan, fabrikazio-prozesuetan, produktuen diseinuetan eta kontsumitzaileen portaeran.*

**Maidier Etxaide\***

## Ingurugiro-kudeaketa enpresan



**G**aur egun, ingurugiroa kalitate-kontzeptuari estuki lotutako lehiakortasun-faktorea da eta ingurugiro-kudeaketa enpresaren kudeaketaren arlo estrategikoa izatera iritsi da. Ingurugiroaren kudeaketa ikusmolde global estrategikoa da, enpresaren ingurugiro-arriskuak identifikatzen, ebaluatzen eta kontrolatzen ahalbidetzen duena eta, horrez gain, ekoizpen-prozesuaren akats eta hutsuneak aurkitzen eta alternatibak bilatzen laguntzen duena.

### Ingurugiro-ikuskaritzako sistema desberdinak merkatuan

Ingurugiro-kudeaketarako sistema lantoki jakin batean, enpresa-lerro batean edo sektore batean ingurugiro-kudeaketa burutzen den modu zehatzari esaten zaio. Ingurugiro-kudeaketarako sistema ezartzeak ingurugiro-irizpideak enpresaren gestio globalean barneratzea esan nahi du. Hiru sistema-eredu lituzke Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan kokatuta dauden enpresa batek aukeran: bate-tik, nazioartekoa, ISO 14.001 arauak ezarria; bestetik, Europako **Ekogestio** eta **Ekoauditoria** Sistema (EMAS), Europako Elkarteko 1.863/1993 Arautegiaren bidez sartua; eta, hirugarrena, Espainiakoa, UNE 77-801/94 arauak ezarria.

Hiruotan ingurugiro-kudeaketarako sistema ezartzea borondatezkoa da eta hiruok baldintza zorrotz batzuk ezartzen dizkiote enpresari, beronen ingurugiroarekiko jokabidea etengabe hobearaziz. Hala izanik ere, sistema horietako edozeinetara atxikitzen den enpresa ez dago ekoizpen

garbiaren\* bidean sartzera behar-tuta, ezen sistema horiek arauen betetze hutsa behartzera baino areago ez baitira iristen: ez dute, beraz, substantzia arriskutsurik ez produkzio-sistemarik ordezkatzeari agintzen.

Sistema desberdin hauek guztiak bateratzearen, Europako Normalizazio Batzordeak (EN) ingurugiro-kudeaketarako sistemen arau europarra taxutu zuen, ISO-14.000 nazioartekoa bere horretan hartuz. Horrela UNE-EN-ISO arauak jaio ziren. Hauek ez diote inolako trararik egiten UNE sistema lehendik bereganatuta duen enpresari.

Are gehiago, enpresa batek ingurugiro-kudeaketarako sistema UNE 77.801en arabera ezarrita baldin badu, ziurtagiri biak batera eskuratu ahal izango ditu zuzenean.

Bestalde, ingurugiro-kudeaketarako sistemaren ziurtagiriaren EN ISO-14001 arauaren arabera eskuratuko duten enpresek EN erakundeak taxututako zubi-dokumentuan zehaztuta dauden eskakizunak ere bete beharko dituzte Europako Batasuneko sisteman izena emanda egon nahi badute.

### Sistemen arteko aukera eginez

Sistema guztien artean badago nahikoa desberdintasunik, enpresari aukera egiteko argudio aski eskainiko dizkiotenak. Esaterako, Europako Arautegiak hasierako ebaluazioa egin dadila xedatzen du; ISO eta UNE arauak, berriz, ez dute horretara behartzen. 1863/93 Araua industrietarako

soilik moldatuta dago. Besteak, berriz, edozein enpresatarako.

Europako Batasuneko arauak urteroko ingurugiro-aitorpena egitea eskatzen du eta beste arauak, berriz, ziurtagiria ematen duen entitateak eginiko eta enpresaren barne-ikuskaritzan oinarrituriko urteko ikuskapena egin beharra soilik xedatzen dute.



Ingurugiro-ikuskaritzako sistema desberdinak daude, eta beraien artean desberdintasunak daudenez, enpresa bakoitzak egokien datorkiona hauta dezake.

Oro har, Europako Batasuneko sistemara atxikitzen diren enpresek eskakizun zorrotzagoak bete beharko dituzte eta ahalegin handiagoa egin beharrean egongo dira beste arauen sistemetara soilik atxikitzen direnak baino. Horren arabera, sistema europarra erabiltzea desabantailatsua dela dirudike. Aitzitik, horrek enpresaren ingurugiro-kudeaketarako sistemari berme handiagoa eskainiko dio eta, ondorioz, bere izen ona indartu egingo du ezpairik gabe.

\* Haizea Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko kidea

\* Ekoizpen garbiak honakoa esan nahi du: produkzio-prozesuetan eta lehengaietan substantzia toxiko eta arriskutsuak murriztu, saihestu edo eliminatzen dituen aldaketak egitea.